

BARREN

1998ko maiatzaren 15a
V tea 36. 1.

E L G O I B A R K O A S T E A R I A

IRITZIA

Anjel Ugarteburu

ERREPORTAIA

Etxeko ekologiari kasu eginez

UDALETXETIK

Isaak Loiota Haziendaburuak lidemagogikotzat" jo ditu HBren salaketak

GEH!GARRIA

TxildBARREN

BERBETAN

Vicente Ribao, Galiza Etxeko lehendakaria

KIROLA

98ko Mugerza krosa, Estatuko laugarren kros onena

Urruzuno Literatur Astearen balorazioa

'Dia Das Letras Galegas'
Galiziarrak jaietan

"Galiziarren iaiak herritar oiztientzat a...tolatzen ditugu" Vicente Ribao



LYZAIDE

KAFETEGIA JATETXEA

Mendarozabal, z/g

Tel: 943 75 51 44- 75 61 66

MENDARO

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



Kontzertua: LORELEI



Maiatzak 15. ostirala

Gaueko 22:00etan

HERRIKO ANTZOKIAN

Antolatzailea



Elgoibarko Izarra K. E.

Laguntzaileak



Elgoibarko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundi



ANJEL UGARTEBURU

Etorkizuna eginkizun

Maiatzari dagokion kultur gida hartu eta poztu egin naiz, harro egoteraino. Beti ari gara honetaz edo hartaz kezatzen baina kultur eskaintza eder askoak ere baditugu gero! Ai gintez gure etorkizuna erakitzeke gai! Gainera, BARREnek bere 236. zenbakia argitaratu du, esku artean duzun honekin. Ez al dago motiborik, herri bizi batean bizi garela eta, harro egoteko?

Baina kontuz Narzimorekin! Mitologiak erakusten digunez, Narziso erreka gardenaren ertze-
ra makurtuta bere buruaren isladari begira egoten zalea zen. Hain eder ikusten zuen bere burua!

Uretara erori eta bertan ito omen zen. Egiten dugunaren isladak eta distirak ez gaitzala tamaina horretan lilura, egiteke dugunaren arloak zabalagoak eta erakar-garriagoak baitira oraindik.

Gaurko lorpenak, biharko lorkizunen abiapuntua besterik ez dira. Etorkizuna, gure buru eta asmoetan irudikatzen dugun etorkizuna, beti izango da, hala izan behar du, orainaldian bizi duguna

baino ederragoa eta osoagoa. Tenka hoffetan bizi ez bagina, ur geldiak bezala lizunduko ginatke. Bizitza, izan ere, etorkizuna eraikitzea da.

Kontuz gazteok! Izan ere, arrakasta erraz eta bizkorra agintzen duen mezulari ugari ari dira baztenetan oihuka. Ez egin kasurik, lanik gabe ez dago arrakastarik eta. Euskal esaera zahar batek dioenez, "arin eta erraz, usoak hegaz".

Azterketa sasoi iritsi dela eta, bada ikasle-
en artean nahikoa urduritasun. Azken orduko, azken asteko edo azken hilabeteko larritasun hauek plangintza faltaren erruz izan ohi dira, neurri handi batean. Irakasle batek esaten zigunez, ez dira gauza bera "bizitzako plana" eta

"bizitzako flana". Bigarren haxe da azken orduko ezintasun askoren erruduna.

Zeure bizitzako proiektuak izan behar du lehenetasuna. Zer izan eta egin nahi duzun erahaki ondoren, hori lortzeko bideak zehaztu eta Inork eta ezerk ez zaitzala bide horretatik aldendu.

Irizpiderik gabe ikusten ditugun telebistako hainbat programek, adibidez, zenbat denbora galarazten ote diguten! Zenbat ordu eder geure prestakuntzari lapurtuak! Gauza bera esan daiteke kaleko gehiegizko egonaldiez edo kirolez ere. Fans edo hintxez gizentzen diren kirolez ari naiz, noski, eta ez norberak egiten duenaz. Horiek ere

beharrezkoak dira gure egunero-
ko zeregin eta buruhausteetatik apur bat askatzeko, baina ez al da gehiegizkoa ia eguneko solasgai bakarria izatera iristea edo, joko inuzente bat dela eta, adar jotzeak baino gehiago, haserreak eta estualdiak ere pasatzea? Nire anda batek futbola ikustean esan ohi duena datorkit gogora: "Badabiz oin be 22 gizon haundi baloi baten atzetik alkar joka eta

hasarre; zergaitik ez deusie emoten bakotxari baloi bana, bakiak egiteko?"

Irakurri berri dut Leo Bassi, amerikar komikoak futbolaz esana: "gorroto dut futhola, errealitatea lapurtzen digulako".

Kirolzaletasunak, kirolzalekeria bihurtzen denean, geure artean ere zenbat kalte, zenbat "buru-jan" egiten digun ohartzen naiz, bere gehiegizko oldarrez, zuri-gorri, txuri-urdin nahiz hlaugrana. Leo Bassi arrazoi ote duen!

Zuk eutsi zeure bizitzako planari. Zaila da, baina lortuko duzun arrakastaren poza ez dizu inork kenduko. Bakoitzak bere UEFari edo Champions League-ri begiratu behar lioke, batez ere.

Atal hau ez da BARREn editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
1r 74 41 12
Publizitatea:
Tr 74 37 04
Faxa: 74 37 04

AnGnARATZNLEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAMA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rala Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldeg Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto triondo, Iñaki Jalo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGJA	Gertu Koop. E.
TIFIADA	4.000 ale
LEGE GOA DAILLIA	SS-I.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sallak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



fundazioa
fundacilin
IraPI

41 DANOBAT

414 GOM
GRUPO DANOBAT

Eibar-Gasteiz autopistari buruzko zuzenketa

Joan den asteko zenbakian Gazte Asanbladak Eibar-Gasteiz autopistari buruz bidalitako prentsa oharrean agertzen ziren zenbait datu oker jarri genituen. Maltzaga eta Bergara arteko zatiak 24 milioiko kostua izango duela esan genuen, baina datua oker zegoen. Izan ere, Gazte Asanbladakoek emandako datuen arabera, 24.000 milioi gastatuko dira zati hau egiteko. Diputazioak duen diru kopurua ez da 18 milioikoa, 18.000 milioikoa, baizik. Eta autopista osoa egiteak ez du 100 milioiko kostua izango, 100.000 milioikoa, baizik.

Bakeroak eta indioak

Txikitan gustukoak nituen bakero eta indioen pelikulak. Hankak aulkitik zintzilik nituela, begiak handi handi eginda egoten nintzen bakero eta indioen arteko borroka amaigabeak ikusten. Zenbat tiro hots, zenbat indio garraxi, zenbat zaldi hankaz gora... Onak bakeroak zirela erakutsi zidaten, John Wayne eta bere lagunak ziren pelikularen amaieran garaile irteten zirenak. Indioak, berriz, txarrak ziren, lunalde arraroetatik etorritako gizakume bitxi bezala azaltzen zitzaizkigun.

Baina nik ez nuen hain garbi ikusten. Ez nuen ezer bakeroen kontra baina indioek ere pena ematen zidaten. Izan ere, bakeroek botatako tiro guztiek indioen bat jotzen zuten bitartean, indioek botatako tiro edo fletxek nekez amaitzen zuten bakeroen baten gotputzean. Hau ez nuen oso ondo ulertzen eta, askotan, ahularen alde egiteko joera naturala nagusitzen zen nire baitan.

Urte batzuk pasa dira, eta orduko pelikulak ahaztuta neuzkanean, nire herria ere oeste txiki bihurtu dela konturatu naiz. Bakero eta indioen arteko pelikulak datozkit berriz ere begien aurrera.

Izan ere, aspakdi honetan Gazte Asanbladakoak (indioak?) gogor ari dira Udaltzaingoa (bakeroak?) erasotzen. Udaltzaingoa ere ez da ixilik geratu eta erantzun die. Alkateak (John Wayne) ere salaketa gogorra leporatu die ekologista-komantxei. Hauek ere izango dute zer esanik,

Eta, bieni bitartean, nire butakatxoan jarrira, ni eurei begira, onak eta txarrak zein diren asmatu ezinik. Nahiz eta orain hankak lurrera iristen zaizkidan.

J. A. L.

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo idenlitikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



• Gazte batzuek galdera hau luzatu nahi diete Udal Kultura Sailekoei: "San Bartolome jaiak prestatzeko ideiak dauzkagu baina astelehenetik ostiralera bitartean klasean gaudenez, ezin dugu Udal Kutura Sallera joan. Zer egin dezakegu gure proposamenak Kultura Sallera helarazteko? Udal Kultura Saileko teknikariak esan digunez, zapatu goizetan bulegoa ire-

kita izaten dute, beraz, "zapatu goiz osoan zehar etor daitezke euren proposamenak aurkeztera. Hil honetan 16an eta 30ean egongo da irekita, hilaren 23an, berriz, itxita. Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 10ean bukatzen da. Bestela, nahiago izanez gero, arratsaldeetan 74 21 58 zenbakira deituta, erantzungailuan laga dezakete mezua".



• Madala inguruan bizi den herritar batek Mankomunitateko arduradunei kexa hau helarazi nahi die: "Kaleak urez garbitzen dituen makina igandeetan, eguerdiko 12:00etatik ordu batera bitartean ibiltzen da zeregin horretan. Izugarritzko zarata ateratzen du eta ulertuko duzuen bezala, inguruan bizi garenok ohean egoten gara ordu horretan, astelehenari gogoz ekiteko asmoz. Badakit ez dela erraza inori trabarik egiten ez dion ordu bat topatzea baina nik alternatiba bat proposatu nahi dut. Kale garbiketa astegun goizeren batean egitea, eta lanorduetan, noski.

BAI, ESAN?



Irabe Osoro
Lehen Jaunartzea
egin berria

Iragan herri den domekan, maiatzak 10, Lehen Jaunartzeak izan ziren. Aurreko astean esan genizuen bezala, Elgoibarren 74 neska-mutil izan dira Jauna estreinakoz hartu dutenak. Irakurtzen ari zaren honek ere gogoan izango duzu, seguruenik, zure Jaunartze eguna. Baina oroitzen alde batera laga eta buelta gaitezen egungo errealitatera. Eta horretarako igandean Lehen Jaunartzea egin zuen Iratxe Osorori deitu diogu.

- Urduri pasa al dituzu Jaunartze aurreko egunak?
- Aurreko gabian ez naban oso ondo lo ein. Jauna hartu bihar gendun eta lehenao ez naban sekula probau. Jendiari entzuten nion Jauna hartzen zahela eta inbirixia ernaten zian, ze oso gozua dala esaten dabe. Ilusio haundixa nakan.

- Kontatuko al diguzu zer egin zenuen ohetik altxatu zinetik aurrera? - Aurreko egunian pelukerixara jun nitzan ilia orraztera. Diadema bat ipini ziaten buruan margaritekin. Soinekua jantzi eta hamabixak eta laurdenetan elizara jun ginan. Mezian Jauna hartu gendun eta hemendik aurrera mezetara juten naizenian Jauna hartu ahal izango det.


Egun polita pasa zenuen? Bai. Gurasuak, aitzitxa eta bi amamak, Arabako eta Eibarko lehengusu eta tivak, danak juntau ginan, 39 edo 40 pertsona, eta Debara jun ginan bazkaltzem. Erregalo mordo bat ein ziaten: pultseria, patinak, game-boy bat, Don Kikon jokua 3, eratzuna, txakuak, lepoko bat, erlojo dijitala, kopina, pluma bat bi kaja tintakin, portaminasa, boligrafiua, kalkulagailua, teniseko raketia eta pelotak, toailak Iratxe izena jarrita eta dirua.

- Jaunartzeko aurreko Kristau Ikasbidean gustura ibili zara? - Bai, 1. mailatik nabil. Gustura juten naiz ze liburuko gauzak irakurtzen ditzugu, bideuak ikusi... Jesus zein dan ikasi det. Pobriei laguntzen zien, ze oso eskuzahala zan. Gaiztuek gurutzera eruan zuten baina hiru egunera piztu ein zan.



HILETA ELIZKIZUNA

1998ko nunatzaren 3an, 82 urte zituela hil zen
LUIS MUJIK A OLASAGASTI, San Viatorreko erlijiosoaren aldeko
ELIZKIZUNEAN parte hartzera gonbidatzen zaituztete
Pilar Ikastetxeka Eskola-Elkarteak eta Parrokiako Abesbatzak. Meza
Parrokian izango da larunbatean, hilak 16, arratsaldeko 19:00etan.



ETXETIK ZAINDU

Etzeko kanila edo txorroa zabaltzea ekintza mekanikoa da edonorentzat eta ez dugu horrek eragin ditzakeen ondorioetan pentsatzen. Euskal Herrian euri asko egin izan du beti, horregatik daukagu hain ingurune berdea. Hala ere, gehiegizko erabilerak beti dakar ondorioren bat. Eta ez urari dagokionean bakarrik, beste hainbat eta hainbat konturi buruz ere gauza bera esan dezakegu. Zergatik hau guztia? Azken batean, etxe barrutik lantzen badugu kontzientzia ekologikoa, horrek eragina izango duelako etxetik kanpo. Gai honi buruz dia izango da datorren asteartean, arratsaldeko 19:00etan hasita Kultur Etxean. Haizea Emakume Taldeak antolatutako Hamabostaldi Ekologikoaren barruan sartzen da.

Susana Felipe eta Sandra Sanchez bilogoak dira eta ekologia gaii buruz dexente gauza dakite. Esan digutenez, "ekologia, inguratzen gaituen guztiaren ikerketa da, hasi mendiak eta segi kaleak, hiriak eta abar eta abar". Gehienok ekologia, berdearekin, naturarekin lotzen dugu eta bi emakume hauen iritziz uste hori okerra da, "egia da mendia eta natura ekologiarekin lotzen direla, baina beste hainbat eta hainbat gauzen azterketan ere sartzen da ekologia".

Sndra Sanchez eta Susana Felipe biologoek ekologiarri buruzko aholkuak eman dizkigute.



Ekologia=moda

Susanak oso garbi dauka ekologiarri ez diola batere onik egiten modan egoteak. "Modan egoteagatik jendeak informazio gehiago jasotzen behar bada eta kontzientziario gehiago eman behar bada, ongi etor bedi moda. Gertatzen dena da, sarri, moda kontuetan interes mordoa egoten dela eta azkenean, ekologia negozio bihurtzen da. Eta horrek ez du ezertarako balio, ez baita kontzientziarioa bilatzen, salmentak baizik". Horren adibide modura aipatu digute nola hainbat produktu "ekologiko" markarekin merkaturatzen diren, "baina gezur hutsa da ekologikoak direla. Lehengo egunean ikusi nuen margarina pote bat "ekologiko" markarekin Kanpotik kartoizkoa zen, bai, baina barrutik plastikoa zeraman. Txarrena da, jendeak ustezko kontzientzia faltsu batek gidatua, produktu horiek erosteko joera duela eta, noski, batzuen boltsikoak aberasten diren bitartean, ekologiarri ez diote mesederik egiten".

Kontzientzia kontua

Zer egin dezakegu, beraz, kontzientzia ekologikoa lantzeko? Susanak eta Sandrak azaldu digutenez, "etxe barrutik hasita, gure ingurunea zaintzen oinanzitzen den kontzientzia ekologikoa izan behar da". Horretarako, lehenik eta behin jarrera aldatu behar da. Beharrezkoa da "egiten duguna ezagutzea, egiten dugunak gure inguruan zein eragin daukan ezagutzea eta kontziente izatea egiten dugun guztia oso garrantzitsua dela. Hiritar kontzienteak izan behar dugu".

Kontsumoa kontrolatu


Jarrera aldaketa baten atzetik dator kontsumoaren kontrola eta erabiltzen ditugun produk-



tuen osagaien kontrola. Esate baterako, haginak garbitzen ditugunean ohitura izaten dugu txorroa zabalik lagatzeko denbora osoan, "kontsumoa kontrolatzeko, onena baso bat urez betetzea da eta baso horretatik hartzea behar dugun ur guztia". Dutzatzean eta burua garbitzerakoan ere, ileari xaboa ematerakoan txorroa itxi beharrean, hortxe lagatzen dugu, ura bota eta bota. Ondorioz, gehiegizko kontsumoa egiten ari gara, inolako beharrik izan gabe. Kontua ez da falta igartzen denean damutzea, daukagunean kontrolatu eta zaintzea baizik.

Beste adibide bat jarriko dugu. Jakin dezagun zenbat ur gastatzen dugun bainu bat hartzen dugun bakoitzean: 130 litro. Hiruzpalau minutuko iraupena duen dutxa batean, aldiz, 30 litro

KANPOAN 111 4111 DIZAN



baino ez dira gastatzen.

Itogina duen iturri batetik apurka-apurka erortzen den ur kantitatea ere ez da nolana hikoia, "bost minutuero 10 litro ur gastatzen da gutxienez itogin bakoitzean". Txorroa zabalik daukagula egiten badugu harrikoa 35-40 litro bitartean kontsumitzen ari gara. Bonba botatzen dugun bakoitzean 6-7 litro alferrik gastatzen dira, "egokiena litzateke ur botila bat bete eta zisternan sartzea. Botilak okupatzen duen espazioa da aurrezten den ur kantitatea".

Birziklaia

Hala ere, ura ez da kontrolatu behar dugun gauza bakarra. Azken urteotan herrian zehar zakarrak botatzeko kontenedore berdeen ondoren, beira sartzeko eta paperarentzako ontziak ere ikus ditzakegu. Poliki-poliki ohitzen ari gara gure etxean zaborra banatu eta bakoitza dagokion ontzira botatzen. Oso garrantzitsua da zaborra banatzea eta bakoitza dagokion multzoan sartzea. Gainera, Susanak eta Sandrak aholkatu digutenez, "zaborra banatu eta birziklatzeaz gain, boltsa ahalik eta txikienak erabiltzea komeni da".

Fosfatorik gabeko garbikariak

Kontsumoa kontrolatzeaz gain, erabiltzen ditugun produktuen osagaiak ere zein diren jakin beharko genuke. Askotan, konturatu gabe, inguruneari kalte egiten dioten produktuak erabiltzen ditugu. Esate baterako, garbikarien kasuan, harretaz begiratu behar ditugu etiketak eta fosfatorik gabeko produktuak aukeratu behar dira. "Thaletako bizidunak hiltzen dituzte fosfatoek".


Bestalde, "olioa izugarri kostatzen da depuratzea eta oso kutsagarria da. Soberan daukagun olio botila edo tetra-brick batean sartu eta zakarrontzira bota behar da".

Ohitura berriak hartu behar ditugu, jarrera aldatu ahal izateko. "Helduak ekologia zaintzeko ardura izan behar dute. Etxean beste era batera jokatu behar dute eta euren seme alabek txikitatik barneratu behar dituzte ohitura berri horiek. Alferrik da eskolan ekologia lantzea gero etxean ez badute jarrera ekologikorik ikusten. Ekologia ez da eskolako ikasgai teoriko bat, eguneroko bizitzan praktikan jarri behar den zerbait

upeArr r•Ana trm Aosoutts

- **Joan den mende bukaeran pertsonako eta eguneko 20 litro ur kontsumitzen ziren. Gaur egun 388 litro.**
- **Etxean erabiltzen den uraren %50a alferrik gastatzen dugu.**
- **Bainu bakoitzean 130 litro ur kontsumitzen da. Hiruzpalau minutuko dutxan, aldiz, 30 litro.**
- **itoginean bost minutuero 10 litro ur galtzen dira.**
- **Harrikoa egiten 35-40 litro ur kontsumitzen ditugu.**
- **Bonba botatzean 6 litro ur gastatzen dira alferrik.**
- **Zakarrak birziklatu eta ahalik eta boltsarik txikienak erabili.**
- **Olio ez bota fregaderatik. Botila batean sartu eta zakarrontzira bota.**
- **Haginak garbitzeko behar den ura edalontzi batean sartu.**
- **Komuneko ur-zisternan ur botila bete bat sartu.**
- **Fosfatorik gabeko garbikariak erabili.**

Egiten al duzu zerbait ingurugiroaren alde?



AGUSTIN JUSTO

26 urte,

Telefonicako langilea

Ez, ideologiarekin bat nator **baina ez** dut ezer egiten ekologia zaintzearen. Egia esan, sekula ez nau arduratu, ezta Doñanako kasuak gertatzen direnean ere.



KRISTINA BERGUA

25 urte, bibliotekonomia

Bai. Papela birziklatzen dot, botilak beira kontenedorietara bota... Mendixan zakarrak ikusten baditxut jaso itxen ditzut. Ekologia danon arazua da eta zaindu in bihar dou.



JON SALABERRIETA

39 urte, espezialista

Orokorrian bai. Mendira juten naizenian zaintzen dot eta etxian ere zakarrak rezi-klatzen ditzugu. Umiak kontzientziatzen saiatzen gera.



M. ROSA BRAVO

50 urte, etxekoandrea

Bai, noski. Donostian hitzaldi batean esan ziguten olioia, esaterako, ez botatzeko fregaderatik eta **nik** ordutik beti kartoizko kaxa batean edo botilan sartzen dut.



MONTAÑA DIAZ

20 urte, tabernaria

Bai. Beti banatzen ditut zakarrak: beira, kartoia, pila eta gainontzekoa eta kalera ezer ez botatzen saiatzen naiz. Badut kontzientzia ekologikoa.



URBANO LOPEZ

41 urte, mekanikoa

Bai, mendira goazenean zakarrak poltsetan sartzen ditugu. Hala ere, gure etxe inguruan ez dago beirarentzako kontenedorerik eta ezin dugu **zakarra** banatu. Instituzioen lana ere bada.



**KAROD1
onn**

**Gabiola
GESTORIA**

Errenta Aitorpena egiteko azken eguna ekainaren 25a
Guk lagunduko dizugu
IEHENBAI EHEN EGITEN

AURORA
ASEGURUAK

San Frantzisko, 22
Tel-Faxa: 943 74 07 97

**OLRSO
TRBERNA**

Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85

-EGONEKO MENURK-
-LARUNKFITETFIN-
Babak Olagarroa Fritoak
-61111EZ-
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako konbiteak, afariak, luntuak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKREZFIZU RURREKONTUR
INOLFIKO KONPROMEZURIK GfIBE1

Ordutegia: Rstelehenetik ostiralera 713-22:30
Larunbatetan 9:80etatik aurrera

Trinitateetan ez da Nagusien Tanborrada anlolatuko 80 lagun elkartu ezean

Momentuz 40 pertsona inguru daude eta beste horrenbeste behar dira

Ekainaren 6an, Trinitate jaien bueltan, duela 4 urte berreskuratu zen Nagusien Tanborrada kalez kale aterako da. Hau horrela izateko, beharrezkoa da 80 bat lagun biltzea. Tanborradaren antolatzaileak gurekin harremanetan jarri dira aurtengo tanborrada ez antolatzeko arriskua baitago. "Joan den zapatu goizean Tehenengo entseiturako deialdia egin genuen eta 10 bat lagun bildu ginen. Bertan geundenon kalktduen arabera, 40 bat pertsona baino ez gara egongo aurtengo tanborradan eta erabaki bat hartu behar zela ikusi genuen. Hurrengo zapaturako, hilak 16, beste 40 bat lagun ez badira animatzen, bertan behera laga beharko dugu".

Elgoibarko Nagusien Tanborradan 30 sukaldari eta 30 soldadu izan ziren iaz. Konpainia bakoitzeko zuzendariak



eta karroarekin joaten direnak kontuan hartuta, 65 izan ziren guztira. Aurten, Udalarekin hitzartutako aurrekontuaren arabera, 16 traje berri egitea pentsatu zuten. "Elgoibarko Izarrak proposatuta, Elgoibarko aitzinako lanbideez osaturiko batailoia sartzeko asmoa dugu. Aurten olagizonekin hasiko gara. Pena izugarria izango litzateke jendea ez delako animatzen dena bertan behera laga behar izatea". Antola-tzaileek herritar guztiei zabaldu nahi diete deialdia, "gazte eta helduei batez ere. Gutxienez 18 urte eduki behar dira baina adin toperik ez dago".

Beste herri batzuetako tanborradetan urtero jende bera ateratzen omen da. "Lehenengo urtean, elgoibartar mordo animatu zen tanborradan parte haitzera baina urtetik urtera kopurua jaisten hasi dela konturatu gara. Iaz 65 izan ginen. Gure ustez, pozgarria izango litzateke jendeak urtero parte hartuko balu, hartara, tanborrada bera ere finkatu egingo litzateke. Beraz, berebiziko garrantzia dauka herritarren inplikazioak".

Gogoratu, bihar, hilak 16, Merkatu plazako azken solairuan bilduko direla entseiatzeko. Jende nahikoa agertzen ez bada, aurtengo Trinitate jaietan ez da Tanborradarik izango. Animatu!

• 40 kilometro mendiz mendl

Morkaikok antolatzen duen Mendi Itzulia igandean, hilak 17, izango da. Goizeko 6:30ean aterako dira mendizaleak 40 km. inguru egiteko asmoz. Iaz 85 mendizalek hartu zuten parte eta aurten beste honenbeste izatea espero dute, baldin eta eguralldiak laguntzen badu. Iaz 6 ordu eta erdian amaitu zuen mendi buelta lehenengo taldeak. Dena den, topikoa izan arren, garrantzitsuena parte hartzea da, eta ez bakonak egiten duen denbora ahalik eta txikiena izatea. Mendizaleak herrira iristeaz bat, Merkatu azokan bazkaria prest izango dute. Bestalde, Finalista Eguna ekainaren 7rako jarrita bazegoen ere, Trinitate jaiekin bat egiten duenez, ekainaren 14ra atzeratuko da.

• Oporrak ezinduentzat

Gipuzkoako Gutxitu Fisiokoen Federazio Koordinatzaileak, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren laguntzaz, ezintasun fisiko edo sentsorialak dituzten pertsonentzako oporraldi programa prestatu du. Edozein ezintasun mota duten pertsonengan pentsatua dago programa hau. Izena emateko Udal Ongizate Sailera jo.



Lehen Jaunartzeak izan ziren domekan

Hona hemen joan den domekan Lehen Jaunartzea egin zuten neska-mutilak. Parrokiako katekistek esandakoaren arabera, 74 haur izan ziren Lehen Jaunartzea egin zutenak. Bi meza egon ziren, bata goizeko 11:00etan eta bestea eguerdiko 12:30ean, biak elebidunak. Mezaren ostean, neska-mutil guztiak elkartu eta argazkia atera zuten. Eguraldi onari esker haurrek eta hauen guraso eta senideek egun benetan ederra pasatzeko aukera izan zuten.

• San Bartolome jaietarako lagunza eskaera

San Bartolome jaietako egitaraua prestatzeari ekin dio Udal Kultura Sallak. Hori dela-eta, herritarren laguntza eskatu nahi dute, edozein ideia eta proposamen Kultur Etxean aurkeztuz, astelehenetik ostiralera bitartean edo 74 21 58 zenbakira deituz. Goizeko 11:00etatik 13:00era bitartean egongo da irekita bulegoa eta epea ekainaren 10era arte luzatuko da.

• Asturias-en astebeteko egonaldia

Jubilatu Etxeak Asturias aldeira irteera antolatu du ekainaren 7tik 13ra bitartean. Egonaldiaren zenbatekoa 45.000 pta.koa da eta prezioaren barruan sartzen dira joan-etorriak autobusez, pentsio osoa gela bikoitzean, aseguru eta gida. Zazpi egunetan zehar, Gijon-eko hiru izarretako hotel batean hartuko dute ostatu bidaiariek. Egunero hainbat txango egingo dira: Covadongako basilika, Pravia, Grado, Pola de Allende, Narceako arroa, Luanco eta Canda's herriak ezagutzeko aukera izango da, besteak beste. **Avila** hirira eta Arbedales-eko aitzulora bisitaldiak ere egingo dira. Zazpi egun hauetan Asturiasko jakiak dastatu ahal izan dituzte, fabada, pote-a, etab. Izena emateko Jubilatatu Etxe zuzendaritzarik pasatu goizetan.

• Errioxara txangoa

Jubilatu Etxeak Errioxara txangoa antolatu du ekainaren 2 lerako, domeka. Prezioa 2.500 pta. dira. Irteera goizeko 8:00etan izango da Plaza Handitik. Izena emateko zuzendaritzatik pasatu goizean.

Jende ugari Corka Salmeronen argazki erakusketan

Ongarri Argazki Elkarteak antolatutako argazki erakusketa inauguratu zen pasaden ostiral arratsaldean. Ekitaldian, argazkien egilea Gorka Salmeron, Ongarriko Jesus Mari Sarasua, Gillerimo Garate alkatea, Ana Santolaya kultur zinegotzia eta poesia errezitaldia eman zuten Alaitz eta Jose Mari Padrón anai-arrebak eta Andoni Salmeron abeslaria izan ziren. Azken hirurek euskarazko poesiak irakurri eta abestu zituzten, ikutu berezia emanek ekitaldiari. Gorka Salmeron legazpiarraren argazkiak haren 30era arte egongo dira ikusgai Kultur Etxean. Jesus Mari Sarasuak esan digunez, inauguraziora 100 lagunetik gora hurreratu zirela kalkulatu dute. Jendearen artean entzundako komentario nagusia argazkien ikusgarritasuna eta erabilitako tek-



nika bitxia izan ziren. Argazki guztiek paisaia desitxuratuak erakusten dituzte eta benetan dira ikusgarriak. 29 lamina dira guztira, 9 sorta osatzen dituztenak. Piezarik txikienek 2 metroko altura eta 5 metroko zabalera dute eta handienak 1,25 m. ditu alturan eta 6 metro zabaleran. Ekitaldira Euskal Herriko argazkilaria ugari hurreratu ziren: Bilboko Patxi Cobo, Roberto Botija, Jose Luis Ramirez eta Angel Alonso. Zumaiaetik Aitor Bayo; Gasteiztik M. Angel Manovell; Donostiatik Olatz Irigaray; Eibartik Felipe Loiola eta Club Deportivoko batzuk, Edorta Kortadi eta Josu Bilhao kritikoa etab.

600 lagun Gaztetxe zapatuko kontzertuan

Gazte Asanbladak zapatu gauean antolatu zuen *Nuevo Catecismo CatOlico* eta *Jeff Dahlen* kontzertuan 600 bat lagun elkartu ziren. Gazte Asanbladakoek esandakoaren arabera, 570 sarrera saldu ziren eta denera 600 bat lagun egon ziren. Kontzertua zertxobait atzeratu zen, *Jeff Dahl* abeslariari Orensetik Elgoibarrera bidean errobera pin-

txatu zitzaion eta. Esan digutenez, zapatuko kontzertua orain arte egin direnen artean, bigarren kontzertu jendetsuena izan da, *Etsaiaken* atzetik. Ezkerrean, *Jeff Dahl*, eta behean, *Nuevo Catecismo Cat6lico*.





onenetarikua da, baina kontuan izan bihar dou hortik gora oso zaila dala Elgoibarera ezer ekartzia". Dantza modernari dagokionean, litekeena da Haritz Dantzari Taldekoek urte amaiera aldera beste ikuskizunen bat antolatzea.

Dantia ikuskizuna Herriko Antzokian

"Damian Muhoz" dantza konpainiak joan den ostiralean eskainitako saioaren bukaerakoa da argazki hau. Orubete inguruz luzatu zen ikuskizuna argi-joko eta lur gaineko teknikaren erakustaldi bikaina izan zen. Haritz Taidearen 25. urteurrena dela-eta, azken asteotan bi dantza ikuskizun Elgoibarreratu ditu talde honek. Lehenengoa Marta Carrascoren ikuskizuna izan zen. Jose Inazio Sarasua antolatzailearen hitzetan, "Marta Carrasco puntako dantzaria da eta hona ekartzia asko kostau jakun arren, azkenian lortu gendun. Kanpoko jendia jun zan hatez ere emakume hau ikustera". Joan den ostiralean, Damian Muñoz gasteiztarraren saiora jende gehiago joan zen, herritarrak gehienak. "Euskal Herrixan daon konpainia

Amaitu dira Lanbroako ekitaldi kulturalak

Azken hiru ostiraletan kultur ekitaldi ezberdinak antolatu dira Lanbroa tabernan. Lehenengo ekitaldian antzezlan bat ikusteko aukera izan zen. Duela bi ostiral, Zigor Gazkez abeslari elgoibartarrak musika kontzertua eman zuen. Azken saioa, argazkian agertzen den soul-jazz bikoteak joan den ostiralean eskaini zuen emanaldia izan zen. Lanbroako Agustinek esan bezala, "asmua zeozer berezixa eskaintzia izan da trago bat hartiaz bat. Momentuz nahikua. Datoren urtian berriz zeozer antolatzeko asmua dakat".



Gurutze Gorriko Gazteen topaketa

Gipuzkoako Gurutze Gorriko Gazteen topaketa izan zen joan den zapatuan San Bartolome ikastolan. Trun, Tolosa, Urretxu, Deba Garaia, Ermua eta Elgoibarko 100 bat gazte elkartu ziren goiz eta arratsalde osoa sokatiran, zaku lasterketan, erreleboetan, baloirik gabeko futbolearen eta beste jolas batzuetan parte hartzen ederki pasatu zutelarik. Eguerdiko bazkariaren ostean, arratsalde partera karaokean abesteko aukera izan zuten. Elgoibarko Gurutze Gorriak antolatutako jai egun hau pinak, jostailuak eta goxokiak banatuz amaitu zen.



Gurasoen jokabideari huruzko Ikastaroa

Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarteak antolatuta, gurasoei zuzendutako ikastaro bat egin dute 17 lagunek. Ikastaroa hiru egunetan egin da: apirilak 29, maiatzak 5 eta 7. Seme-alabeekin gurasoek izan behar duten erantzukizuna eta disziplina, maitasuna, begirunea, askatasuna eta antzerako baloreak landu dituzte. Azken finean, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeko eman behar diren urratsak zehazten saiatu dira. Ikastaroaren zuzendaria Lourdes Copa Conton psikologoa izan da. Argazkian ikastaroan parte hartu duten zenbait guraso.


Isaak Loiola Haziendaburuak ukatu egin ditu HBren usalaketa demagogikoak

Ordezkaritza gastuak "erabat justifikatuta daude", Isaaken esanetan

Isaak Loiola Haziendaburuak, udal karguen ordezkari eta, HBk egindako salaketei erantzun die. Haziendaburuaren esanetan, "fundamenturik gabeko salaketa hauei jarritako enekurtsoak, HBk oposizioa egiteko duen argumentu erreal eza erakusten du". HBk udal ordezkariaren gastuen igoera dela-eta egindako kritikak "demagogia erraztat" jotzen ditu. "Gastu hauek erabat justifikatuta" daudela esateaz bat, Elgoibar moduko udal batek, "egoera ekonomiko delikatu batetik atera nahi denean, gestio handiagoa behar dela proiektu berriak aurrera, ateratzeko" gaineratu du. "Hor daude, adibidez, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat buruzkari gure herri-egindako bisitaldiak. Gestio hauen emaitza denok ikus dezakegu: Albi-

txuriko proiektua, San Migeleko ubidearen bideraketa, hirigintza planak etab."

HBk udal kontabilitatearen datuak ezkutatzea egotzi zion Haziendaburuari. Salaketa hau ukatu egin du Loiolak, "Mendizabal jaunak gezurra dio fakturarik begiratzen ez diogula utzi esaten duenean. Hazienda Batzordeko kideak guztiaren lekuko dira. Erakunde honen politika transparentzia osokoa da eta batzordeko edozein kidek informazio oren azterketa egin deza-



HBk leporatutako "okultismo salaketek" ez dutela zentzurik azpimarratu du Isaak Loiolak.

ke. Dagoen baldintza bakarra frogagiriak egoitza ez ateratzea da". HBk leporatutako "okultismo salaketek" ez dutela zentzurik azpimarratu du Isaak Loiolak.

• PPko iinegotziaren informazio eskaria Udaletxerako gerentearen gaiari buruz

PPko ordezkaria den Juan Carlos Abianek helarazi digun idatzi batean irakur daitekeenez, "badirudi Udaletxeko langileen arduradun edo gerente gisa norbait kontratatzeko asmoa dagoela". Momentuz gai honi buruz ez dute informaziorik jaso eta Abianek eskaera egin dio alkateari esanaz, "zerbait eskuartean badute, Barne Sailean jakinarazi dezatela".



Atentatuen aurkako protesta

Joan den ostegunean eguerdiko 12:30etik 13:00era bitartean, Udaleko hainbat langile eta herritar Udaletxeko arkupeetan elkartzu ziren asteartean izan zen ETaren atentatua gaitzesteko. Aipaturiko atentatua Toma's Caballero, UPNko zinegozinegotzia hil zuten. Igandean, beste atentatu batean, Alfonso Parada guardia zibil ohia hil zen Gasteizen. Atentatu bat gertatzen den bakoitzean, arratsaldeko 20:00etan Plaza Handian elkartzen dira hainbat herritar. Joan den ostegun eguerdikoa, berriz, Eusko Jaurlaritzak deitutako gaitzespen ekitaldia izan zen.



Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 44. GEHIGARRIA

EUSKARAREN JAIALDIA



PILAR IKASTETXEA



Kaixo lagunok111

Ikasturte honetan zehar, Pilar ikastetxeko Lehen Hezkuntzako hurrekin makina bat jolas, abesti, denborapasa... egin ditut. Joan zen astean ospatu genuen jaialdian agurtu nintzen datorren urterarte.

211

41)

211

Txistea

Mutiko bat txakurrekin pasiatzen ari dela, galdetzen dio gizon batek:

- Zer nolako txakurra da?
- Polizia txakurra
- Ez du, ba, ematen.
- Noski, polizia sekretuarena da eta erantzuten dio mutilak.



Jakitunen eskutik

Taldean iolastearen garrantzia

Gizarte kapitultista batean sartuta gaude, inolako zalantzarik gabe. Horrek baditu hainbat abantaila baina baita beste zenbait desabantaila ere, eta horiei erantzunak eta irtenbideak ematen saiatu behar dugu. Esate baterako, haurren jolasei dagokienean aldaketa nabarmenak gertatzen ari dira azken urteotan eta aldaketa horiek eragina dute bai haurren heziketan eta baita baloreetan ere. Bideojolasak, konsolak... Jolas hauek haurren izaera indibidualista, egoista, kontsumista eta kompetitiboa lantzen dute. Zoritxarrez, balore hauek gero eta indar gehiago hartzen ari dira eta ez hori bakarrik, zenbat eta gehiago izan, orduan eta zorientsuagoak garela pentsarazten digute. Eta hori ez da horrela.

Jolas hauen aurrean beste era bateko ekintzak ere badaude, lagun artean egin daitezkeenak. Jolas hauen bidez heziketa aberasgarria jasotzen dute haurrek. Jarraian zenbait aholku emango ditugu.



AMAGOIA ZABALA
HEZITZEN ELKARTEKO GIZA
HEZITZAILEA

1- Sei urtetik aurrera haurrek beraien adineko lagunekin jolastu eta jolas horiek konpartitu behar dituzte. Jolas hauen bidez haurrek beraien artean erlazionatzen dira eta, bide batez, errespetua, kidetasuna, lagun arteko laguntza eta jolasak eta ekintzak konpartitzeak duen garrantziaz jabetzen dira. Honela, lege sozialak onartzen hasten dira.

2- Bestalde, jolasa oso garrantzitsua da haurren garapenean. Jolasen bidez helduen mundu soziala ezagutu eta azter dezakete eta, bide batez, rol desberdinen ezagupena jasotzen dute, beraien burua beste pertsona baten paperean kokatuz eta ikusiz.

3- Guraso guztiek haurrekin jolasten dutenean heziketa bultzatu behar dute. Jolas didaktikoak bultzatu behar dituzte, jolasak eta aisialdia haurrek beren adineko neska-mutilekin banatu behar dituzte, eta ez bideo-kontsola eta antzeko aparatuen aurrean orduak eta orduak bakar-bakarrik pasatuz. Azken batean, jolasen bidez haurrek hezitu giten dira.

Zer iritzi daukazu0.a.loalgei buruz?



G ym, ~~0,4"~~ 41~1,14a f5ta, 1444,1~ ta1ekl/K
0,4", ia. 1,(4,111~

ITSASO BAZTARRIKA, 7 urte



Ealikus D40 iatWak GtMfc da tae t'4414 t-4-141.4 42/1/14,e''

e/3. 4A, 1444, ke.44,, 0144 kaeki,h, e{{111." 4/144


MELANY FERNANDEZ, 11 urte.



114e da 03, 4tela, tale 44~(440 1(AATt. tx(AI. Akm.~14 ltcv 14,14,aZ4G

egZea,, viz "tutrm% 4taulte4~. isklit 07w ha


HARITZ ARRIETA, 13 urte



**AICU
ARLIJAEARLENA**
urte

Gaide Fdebalde

- 1- Zenbat urte bizi nahi zenuke?
- 2- Zein kirol gustatzen zaizu gehien?
- 3- Zer egingo zenuke alkatea bazina?
- 4- Zein zaporeko gozokia duzu gustukoen?
- 5- Nolakoak dira estralurtarrak?
- 6- Ba al duzu amuletorik?
- 7- Zein da ofiziorik politena?




**GOLASIL
GOSIZALL7**
urte

- 1. 100 edo hola baina osasunakin.
Futboia. Gustauko jatan futbolistia izaia eta Errealian jokatzia.
- 3- Futbol zelai herri bat umientzako.
- 4- Naranjazkoa.
- 5- Zatarrak, berdiak eta hiru begikin. Baina ez dia existitzen, pelikuletan bakarrik agertzen dia.
- 6- Ez. Ez dot sinisten holako gauzetan.
- 7- Ertzaina izatia.

- 1. 8 urte. Haundixaua izateko.
Korrika eitxia.
- 3-- Ibaixa garbitxu, parke gehixo jarri jolasteko eta jai gehixo ipini.
- 4- Fresazkua.
- 5- Txikixak. Antenekin buruan eta begi haundixekin.
- 6- Ez, ez dakitx zer dan hori.
- 7- Medikua.

Zer

JAISILL ASPIAZU 9 URIL




"Backstreet Boys taidea da pasioa. Oso guapoak eta martxosoak direlako".

ANGELU OSCADC 14 urte



"Nagusiek eta hurrek sentitzen duten amodioa beste pertsona batzuegatik."

4ILIESI LAMOS 8 UVIL



"Mutil bati muxu haundi bat ematea da pasioa."

SAICA EIZAMBILL 11 urte



"Norbaitenganako duzun maitasuna baino zerba it sutsuagoa."

[Empty blue bar]



"Romeok Julietagatik sentitzen duena."

JAISILE IGULEIS 11 urte



"Zerbait egin nahi duzunean pizten za izun sentimendua."

ERANTZUNAK: 1- Artaburua, 2- Zein musika aukeratuko zenuke festa baterako? eta 4- Urpekontzia, hiru behi eta pila elektriko.

p1.10p 409 Ind

aaa LIDOLlep 0111909

Diep .107 0.10 DIOp -10Z

poapo

uguep ai!p !Liaci losuaz

uope uai!leci !ci log Naci


UDGJOID Ualln placi

ucezp ualog !1.99 imaci

ola


114aup06


ip9op uosos41 —



op ofiunol


041)111513 ZIOZI



„DaE6a
pziupp upialsau  pl
lopiã6 Hsacip uazipisn6
apz za lap.inw 'cuau!pg
elnuã6 olnipsod
UDZIUDD DOSO DIOCIUGO
pla pp DOSOXIIDLII OSO
olsp ua-Lii!ws ium,,

apin


VOAON Xf1I3HS



„zappz:ppo 'upiox4seq0
,anslnxnw nzapow3,
'ainplaq untanzloa
elS9C1 Dja Diaq aia
enlul 'Ealupp alnuë6
_o6ui upgios uplanz!pa
'ploH lopuo Oalpzag,,

94.an

USVOYSVIIIJO.I.V
11315V



i,,n6alp NaNDO Jel



¿nny PIDI DP aaz



iNDUISD ziozo npsocituoquao

Vicente Ribao Gomez Orensen jaio zen orain dela 56 urte. 19 urte zituela Elgoibarrera etorri zen osasun arazoengatik. Galiziar batekin ezkondu zen eta seme bat dute. Gaur egun Galiza Etxeko Elkarteko lehendakaria da eta berarekin hitz egin dugu asteburuan ospatuko dituzten Letras Galegas jaien berri izateko. Vicentek esan digunez, "galiziarrok elgoibartarrentzat antolatzen ditugun jaiak dira gureak".

VICENTE RIBAO

"Galiziar eta euskal dantzak batera ikusteak izugarri hunkitzen nau"

- Osasun arazoengatik etorri zinen, ezta?

- Hala da, bai. 19 urte inguru nituen eta osasun arazo txiki batzuk zirela-eta Euskal Herrira etortzea gomendatu zidaten. Galizian lana neukan baina etortzea erabaki nuen. Elgoibarren lantxo bat eskaini zidaten eta berehala etorri nintzen. Klima antzekoa genuela us-te nuen baina etorri nintzenetik primeran ibili naiz. On egin zidan etortzeak.

- Galiziarrek galiziarrekin ezkontzen zarete ia beti.

Bai, hala da, baina kasualitate hutsa dela esango nuke. Maitasun kontuetan ez dago begiratzerik bestearen jatorria zein den. Niri galiziar batekin maiternintzea tokatu zitzaidan baina

ez zen aukera bat izan.

Noiz sortu zenuten Galiza Etxea?

1978an. Zenbait galiziar Estazio tabernan elkartzen hasi ziren eta gero, poliki-poliki, lokal batean eta bestean ibili ostean, Urasandiko honako hau erostea erabaki zuten. Lokala erostean sartu nintzen neu ere bazkide.

- Iazko abendutik zu zara lehendakaria.

- Bai, hala da. Oso pollitika zorrotza dararnagu zentzu horretan. Urtero hauteskundeak izaten ditugu eta lehendakariorde bat aukeratzeko dugu. Hurrengo urtean bera izaten da lehendakaria. Nahiago dugu horrela egitea, bestela, pertsona batek urte asko irauten duenean lehendakari bezala, badiru-

di zerbait arraroa geratzen dela, eta hemen denok gara berdinak, guztiok egin behar dugu lan.

- Zenbat bazkide zarete?

- Gaur egun 48. Gure estatutuetan 50 laguntzat daukagu topea jarrita. Egia esan, ez dago lekuri gehlagorretzat, lokala txikia da eta. Hala ere, ez zaigu eskererik iritsi. Gainera, jaietan esaterako, 150 lagun elkartu izan gara hemen bazkaltzen. Aurten bi taldetan banatu gara erosoago egoteko.

Zer suposatzen dute jaiak zuentzat?

Guk, galiziarrok lan egiten dugu jai hauek antolatzen baina berez, jaiak herritarrentzat dira. Herritarrek disfrutatu behar dituzte, guri lan egitea tokatzen zaigu. Baina oso gustura gaude horrela, gure kultura herritarrei helarazteko modua baita.

Garai batean tuna zeinukaten.

- Bai, baina ohitura horiek galdu egin dira. Haur haiek hazi egin dira, ez dago irakaslerik, eta, poliki-poliki, gauza horiek laga egin ditugu. Zorritzarez, gure ohiturak galdu egin ditugu.

Zein da ekintza nagusia?


- Nire ustez dantzak. Iaztik Haritz Dantza Taldearekin batera dantza ikuskitzuna antolatzen dugu eta benetan pozgarria da. Ni izugarri hunkitzen naiz Plaza Handira joan eta gure dantzak eta euskal dantzak elkartuta ikusten ditudanean.


Zer esango zenioke zuen jaiak ezagutzen ez dituen herritar bati?

- Etortzeko eta ikusteko zer dagoen. Ziur oso ondo pasako duela.

II'ESTE EK ESANA

"Langilea eta konstantea da. Lehendakaria denetik, ahal duen guztia egiten ari da behar dena lortzeko"
FRANCISCO SANTAREN, leheniakariordea





Jesus Mari Elgoibarren jaio zen duela 53 urte. 1973an, lan kontuak zirela-eta, Brasil aldera egin zuen alde, Rio de Janeiro hirira, hain zuzen.

jestAs GabirovIdo

Bertan gaur egun bere errtatzea dena ezagutu zuen, Iara brasildarra. Hurrengo urtean ezkondu eta Sao Paulo hirira joan ziren bizitzera. Gaur egun ere bertan bizi dira.

Jesus Marik Makina Erreminta sektoreko enpresetan egin izan du lan. Gaur egun, berriz, Kondiak Brasilen duen ordezkaritzarako ari da lanean.

1974an, Jesus Mari eta Iararen lehen semea jaio zen, Aitor, eta 78an, bigarren sernea, Iker. Biek dute izen euskalduna, baina jakin dugunez, izenak amak aukeratu zituen. Senitarteko euskaldunak zituzten lagun arjentinar batzuek emandako zerrenda batetik aukeratu omen zituen izenak.

Itxura denez, portugaldarrez hitz egiterakoan azentu piska bat igartzen omen zaio Jesus Mariri. Urte haueetan behin bakarrik etorri da Elgoibarrera, 94an, hain zuzen, familia osoarekin. Izan ere, familia eta lagunuen falta da gehien igartzen duena. Hori bai, jakin dugunez, emazteak ba omen daki legatza eta txapiroiak bemengo erara jartzen.

Gaur egun, bere semea, Aitor, egonaldi luzea pasatzen ari da Elgoibmen, praktikak egiten ari baita Kondian. Hori dela-eta, Jesus Marik sarri izaten du ElgoibatTen gertatzen denaren berri.

Ar"

VIAJES B12ATAK
BILBRO EXPeSS
bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Isidro Galvifiu Arriete (1918-1984)



- 1918ko maiatzaren leian jaio zen Galizia-ko Lugon. 4 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena.
- Bi urte zituela familia Tolosara joan zen, aitzak Tolosa aldean egin baitzuen soldaduzka eta, beraz, ezaguna zuen. Ama Laudiokoa zen.
- Eskola publikoetan oinarritzko ikasketak egin ondoren, Carrocerias Oria'n egin zuen lan denboraldi luzean. Bere kontu lan ugari egiten zituen autoak, motorrak eta bizikletak margotzen. Trebetasun handia zuen Isidrok lan honetan.
- Tolosako Basilia Gdmezekin ezkondu eta 2 seme-alaba izan zituzten.
- 1958ko ekainean Elgoibarrera etorri zen bere familiarekin, Carrocedas Zubelaga'ra lanera, bertako jabeak eskatuta. Lantegi hau Kamineroko frontoi zaharraren inguruan kokatuta zegoen. Tolosan egiten zituen lan berberak egiten zituen bertan. Ondoren Geminis'en hasi zen eta berandua-go, beste bi bazkiderekin Carrocerfas Irigarre' ireki zuen Dehan.
- Artista zen miniatuazko auto, itsasontzi eta etxeak egiten.
- Pedro Migel Urnizuno kalean bizi izan zen. Familia girokoa, sinpatikoa eta borondatezkoa. Gizon apala eta estimatua zen, beti irribartsu.
- Gogoko zuen Gorostiza' tabernan kina eta karta jokoa aritzea farias ederra etetzen zuen bitartean. Irakurtzea eta pasiaran ibiltzea ere gustatzen zitzaion.
- 49 urterekin elbarrituta geratu zen gaixoak jota. Hala ere, 60 urterekin, Lugora bidaia egin zuen, bere jaioterria ezagutzeko.
- 1984ko ekainaren 7an hil zen 66 urterekin.

Juanito Gorostiza

41

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

9 943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
20600 EIBAR

AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Fiskala—bnekoak
Kontabilitatea—Aseguruak

ERRENTA AITORPENAK EGITEN DIRA

Antonio Arriliaga, 4 behea
Tel/Faxa: 943 74 45 57 Tel. mobila: 970 49 72 36



Argazki honetan 'Lagun Onak' ize-
neko estudiantina edo orkestako
zenbait kide agertzen dira. Juani-
to Etxanizek lagatakoa da eta
1927koa dela esan digu. Orkestina
hau oso ezaguna zen herrian eta
emanaldi ugari eskaintzen zituzten herriko
eta auzoko jaietan. Erretratukoak honako hauek dira:

Atzeko ilaran, ezkerretik hasita: Felix Ansola, Lucia-
no Cordero (i), Juanita Zubizarreta (t), Isaak Azpia-
zu (t) eta Sebastian Epelde (t).

Aurrean eserita: Juanito Salaberria, Jose Mari Etxa-
niz (?), Juanito Etxaniz eta Luis Etxaniz.

Musikoen atzean, horman isekita, koadro bat dago.
Bertan agertzen den gizona Angel Arriaga da, Altolako
bainuetxeko jabea zena.

Lanbroa

Peciro Muguruza 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

- Kontabilitate
Lan


Kolo
mua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91

URKIDI
AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURUAK

3011 Vswarioc,
torre

Albaitaritza
klinika

San Roke, 26 • Egoibar • **TEL:** 943 74 07 04 908 87 39 40



"Kontua ez da asko entrenatzia, nola entrenatu baizik"



Martin Dominguez

- **Adina:** 29 urte.
- **Kirolen bat probatzeko gogorik?** Piraguan ibiltzia nahiko nuke.
- **Zein kirol ez zenuke sekula egingo?** Arriskutsuak diazen kirolak ez jataz erakargarriak eitxen.
- **Beste zaletasunik?** Kirolarekin lotutako dana.

- Korrika, bizikletan, igerian,...

Igerixan ibili izan naiz, baina aurten korrika eta bizikletan nabil batez ere, duatloietan. Jendiak esan ditz triatloietan parte hartzeko baina ez daukat gogorik. Nahikua dakat duatloiekin.

- Aurten hasi zara duatloian.

- Orain arte bizikletan ibili naiz batez ere. Jubeniletan bi urte ein nitxun. Gero karrera zikloturistetan hasi nitzan eta nere kontu batez ere. Eta oin dala urte batzuk arte mendiko bizikletako karreretan ibili naiz. 3 urtetan ein naban Euskadiko Opena baina ez naukan entrenatzeko astirik eta horrek oso entrenarnendu gogorra eskatzen dau. Duatloia ondo dao baina gogorra da. Triatloia baino gogorra dala esan diate, azkarra dalako eta lasterketak motz xamarak diazelako.

- **Zer moduz Elgoibarko Duatloian?** - Bizikletan nahiko gaizki pasau naban, Kalbarixotik bueltan. Haura bai izan zala kalbarixua! Bolak igo jatatzen, tiroiak nauzkan,...

- **Hala ere, lehen elgoibartarra izan zinen.** - Bai, 22.a iritsi nitzan nahiz eta Kalbarixotik 9. lekuan pasatu. Bizikletarekin 13. postuan sartu nitzan eta gero korrika beste 9 postu galdu nitxun. Errenka amaitxu naban.

- **Zein inpresio eman zizuten lehiakideek?** - Maila haundiko konikalariak zaozela iruditxu jatan. Aurrian ibiltzen dianak, bai bizikletan bai korrika, oso ondo dabilen jendia da.

- Entrenamendua oso inportantea omen da Duatloian.

- Bai, kirol batetik bestera aldatzia oso gogorra da. Bizikletan ibili ondoren korrika itxia inportantia da aldaketak zela eitxen dian ikasteko eta gorputza horretara ohitzeko. Elgoibarko duatloian, dez, korrika ein eta gero, hamar kilometro ein bihar izan nitxun bizikletan erritmu hartzeko. Bai bizikletan bai korrika oso ondo ibili arren, ohitxuta ez bazaude, oso gaizki pasatzen da.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Normalian pare bat egun eukitzen ditzut astian libre. Egundarian, adibidez, goizez gogor ibiltzen naiz bizikletarekin eta arratsaldian atseden hartzen dot edo denboria badakat, Mintxetan pare bat buelta ematen ditzut, relajazio moduan. Gero hurrengo egunian deskanso edo korrika eitxen dot, eta arratsaldian, bizikletaria, baina oso lasai. Kontua ez da asko entrenatzia, nola entrenatzen dozun baizik. Ez badozu ondo entrenatzen aurrrera ein biharrian atzera eitxen dozu. Azkenengo urtietan mejorixa haundixa igarri dot, eta batez ere entrenatzeko moduagatik izan da, ze fisikoki ez daukat aparteko kualidaderik.

- **Nahaste-Borrasteko azken edizioak zuk irabazi dituzu.** - Bai, azken bost urtietan lenengo hiruren artian amaitxu izan dot. Aurten ez dot parte hartuko ze egun berian Sabilianigon karrera zikloturista bat dao. Urtero egoten naiz jutekotan eta aurten nixe.

K I R O L A L B I S T E A K

• Ligako azken partidua jokaituko du Haundik zapatuan

Bihar, hilak 16, ligako azken partidua jokaituko du Haundik. Partidua arratsaldeko 17:30ean hasiko da Mintxetan eta Burgos taldearen aurka izango da. Partiduan zehar, urrezko garaikurra emango diote Xabi Alonso jokalaria elgoibartarrari 12 urtez Haundi taldekoa kidea izan delako. Denboraldi amaieran egiten duten afaria, berriz, ekain aldera izango dela esan digute. Bestalde, dagoeneko badago talde bat zuzendaritza berria osatzeko prest. Jakin dugunez, lantalde hau hasi da lanean baina aurtengo denboraldiko diru kontuak lotu eta klubeko asanblada egin arte ez dute euren izenik zabaltzerik nahi.

• Maialen Mora Espainiako Judo Txapelketarako sadkatu da

Ibai Kirol Elkarteko Maialen Mora, Espainiako Judo Txapelketan arituko da 17 urtez azpikoetan mailan hil honen 23an Madril. Maialenek Euskadiko, Aragoiko eta Errioxako txapeldunei irabazi zien joan den zapatuan Errenterian izandako Espainiako Sektoreko Txapelketan. Nafarroako ordezkariaren aurkako borrokaldian, bai Maialen bai ordezkari nafarra beretsu xamar aritu zirenez, biak joango dira Madrileko finalera. Gogoratu, Maialenen anaia Egoitzek ere, hilaren 30ean egingo duela Madrileren bidaia Espainiako Txapelketan parte hartzeko.



Estatuko laugarren kros onena izan da 98ko Mugerza Memoriala

EAE n Zornotzakoa bakarrik dago aurretik

Espainiako Federazioak saikapen bat egin du urtean zehar jokatu diren kros guztiak. Saikapen hau kros bakoitzean parte hartu duten korrikalariak urtean zehar lortutako emaitzen arabera egiten da. Horrela, bada, Elgoibarko Mugerza krosak laugarren postua eskuratu du. Gizonekoen krosen atalean, berriz, Estatuko hirugarren onena da.

Ego-Toki Elkarteko Jose Mari Kortak adierazi digunez, "korrikalariaren arabera dao puntu asko Iortzia. Zenbat eta diru gehixoa, saltakari hobiak, eta korrikalari hobeekin puntuazio haundixaua". Horrela bada, Ego-Tokikoak oso haito daude 12 milioiko aurrekontua besterik ez duen Mugerza Krosak, Estatuko rankinean, laugarren postua eskuratu duelako.

Lehen postuan Sevillako krosa dago 2.184 punturekin. Bigarrenean Zornotzakoa, hirugarrenean Alcobendasekoa eta laugarrenean, Elgoibarkoa 1.228 punturekin. Kontuan izan behar da, Mugerza Memorialaren aurrekontua nahiko apala dela beste ba-

tzuen alboan. Elgoibarko krosaren maila zenbateraino den ona konturatzeko, Donostiako krosaren postua ikusi besterik ez dago, zazpigarrena, hain zuzen. "Askotan Elgoibarko krosa Donostiakoa baino eskasagoa dela ematen du zenbait egunkari irakurritzeri. Oraingoan argi geratu da zein dagoen zeinen atzetik".

Koeh, Fiz, Dulecha

Esan bezala, korrikalariak urtean zehar lortzen dituzten emaitzen arabera ematen zaizkio puntuak kros bakoitzari. Horrela, Elgoibarren irabazi zuen Koeh keniarra bigarrena izan zen Munduko txapelketan. Marin Fizi esker puntu asko eskuratu ditu Mugerza krosak (bigarren Elgoibarren eta maratoiko rankinean aurreko postuetan). Emakumezkoetan irabazlea izan zen Kutre Dulecharen kasuan ere, gauza bera gertatzen da, azken hau hirugarren geratu baitzen Munduko txapelketan.



1999ko Mugerza Krosa, urtarrilaren 24an

Ego-Toki Elkarteko arduradunek jakinarazi digutenez, 1999ko Mugerza krosarako data jarrita dago. 1999ko urtarrilaren 24an izango da, domeka. Federazioak Ego-Tokiri eskaintzen zizkion data posibleen artean, urtarrilaren 3a eta 24a zeuden. Ego-Tokikoek urtarrilaren 17an, San Anton egunean nahi izaten dute krosa egitea baina itxura denez, egun honetan Sevillakoa izango omen da. Zornotzakoa, berriz, urtarrilaren 10ean jokatuko da. Hor-taz, 99ko urtarrilaren 24an antolatuko da Mugerza Memoriala.

• Atletismo Txapelketa

Bihar, hilak 16, Gipuzkoako Atletismo Txapelketako probak jokatuko dira Mintxetan goizeko 10:30ean hasita. Infantil eta alebin mailatan izango dira probak. Pisuana Maialen Morak hartuko du parte. 600 metroan Alaitz Merinok eta Ana Etxanizek. Azken hau 80 metro hesietan ere arituko da. Azkenik, 80 metroan Nuria Revuelta arituko da.

• Txirrindulari lasterketa igandean

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, igandean, hilak 17, jubencil mailako txirrindulari lasterketa izango da. Irteera goizeko 10:00etan izango da Plaza Handian eta helmuga Santa Klaran. Guztira 101 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek.

IC: MAIT 7. AK

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 18 - Arrate 22 (Jub. nes.)
 Tecnomeca Elg. 30 - AlojaMench 29 (Jub.mul.)
 Urola 8 - Unceta Elg. 22 (Kad. nes.)
 AlmenTxikilo - PneumaxElg.28(Kad. mul)
 Tolosa 16 - Elgoibar 25 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak I. Saria

Haundiko jokafart erregularrena 97/98

Jokataria	Puntuak
1- Gorka Guarrotxena	54
2- Miguel Diaz	46
3- Koldo Agirregomezkorta	35
4- Eneko Barrenetxea	32
5- Karlos Madina	32
6- Jabier Gurrulxaga	30
7- Ander Iruretagoiena	26
8- Iker Atxabal	25
9- Gaizka Lazarobaster	21
10- Unai Aranburu	21
11- Joseba Igartua	17
12- Mikel Elkorro-Irbe	15
13- Jon Argoitia	11
14- Xabier Alonso	11
15- Aiert Zinkunegi	11
16- Aitor Trebiño	9
17- Igor Prieto	8
18- Mitzel Badtola	6

Pilota

Lagunak Pilota Txapelketa (98/05/08)
 Lopez 9- Arribillaga 18 (Benj. aur.)
 Salazar 14 - Rodriguez 18 (Benj. aur.)
 Larrañaga 5- Martinez 18 (Benj.)
 Elustondo 12 - Larrea 18 (Benj.)
 Ulazia 18 - Agirrebeña 8 (Alebinak)
 Lagunak Pilota Txapelketa (98/05/13)
 Bilbao 18 - Lopez 10 (Benj. aur.)
 Artzabalaga 18 - Loiola 11 (Benj.)
 Txurruka 18 - Ugalde 12 (Benj.)
 Agirrebeña 18 - Azpiazu 6 (Ale.)
 Alkorta 18 - Rojo 15 (Kad.)

A a r n ' 11 A

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 16
 17:30 Haundi - Burgos
 Igandea, 17
 12:00 Elgoibar - Tolosa (Inf.)
 16:30 Elgoibar - Urnieta (1. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 16
 16:00 Unceta Elg. - Bergara (Kad. nes.)
 17:30 Pneumax Elg. - Bergara (Kad. mut.)

Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 16
 10:30 Gipuzkoako Atletismo Txapelketa

Saskibalola, Kiroldegian

Larunbata, 16
 19:00 Elgoibar S. T. - Usurbil S. T.

Areto futbola, Kiroldegian


Ostirala, 15
 22:10 Patxa. La Navarra - Elgoibar (1. maila)
 23:10 Umora Ona - Elgoibar (Auton.)

RI 2L

Okela gordinaren odol jarriak

Infernuko ateko ireki bezain laster, oihaak, negarrak eta txuribeitzean margotutako ikarak inguruzten gaitu. Clive Barker-en nobela/filme batetik irten balitz bezala agertzen zaigu, San Francisco hirian finkatutako talde beldurgarri-erietariko bat, **UNSANE** izenaren azpian ezkututzen den hirukotea. M. Manson edo antzeko taldeek egiten dituzten zirkoez baliatu gabe, zuzeneko emanaldiak sortarazten duten krudeltasun eta beldur sentsazioek ez dute parekorik. Azalaren paisaia odoltsuen azpian, gorri koloreko sei sokaz baliatzen dira sufriarazteko, beltz koloreko Iau soka zauriez hornitzeko, ahotsa, laguntza eskatzeko eta batera, infernurako bidea eraikitzeko. Abiadura martxak aldatzen doazen heinean, igogailua jaisten doa. Gainera, CDa alderantziz jarritz gero, izugarriko algarak entzun daitezke. Occupational Hazard azken diskarekin, 40 minutuko BSO beldurgarria egin dute, gaur denok argia piztuta dugula lo egin dezagun. Ez ezazue eskua ohe azpira hurreratu...

Iban Urizar
Julen II



Urruzuno Literatur Astea

Jendearen partehartze eskasa nabarmendu dute Eigoilharko Izarrakoeak

Elgoibarko Izarrak Pedro Migel Urruzuno idazle elgoibartarra hil zeneko 75. urtemenari eskainitako Aste Literarioa amaitu berri du. Elkartetik adierazi digutenez, "gustura gaude prestatutako egitasmoarekin baina mahainguruetara jende gehiago azalduko zela uste genuen". Elgoibarko Izarratik emandako datuen arabera, lehenengo mahainguruan, *Literatura eta abertzaletasunari* buruzkoan, hain zuzen, 15 lagun bakarrik izan ziren. Hurrengoan, *Literatura eta emakumea* gaiaren inguruan izan zen saioan, "20 lagun baino ez ziren arrimatu Kultur Etxera". Jende gehien erakarri zuen ekitaldia Jasone Osoro BARREneko lankide eta idazlearen 'Tentazioak' Ipuin-liburuaren aurkezpena izan zen, "25 bat lagun elkartu ziren". Antolatzaileen esanetan, "gaiak interesgarriak zirela pentsatuz antolatu genituen, baina horrelako gaiak oso jende gutxi erakaritzen dutela konturatu gara". Estreina esperientzia izan da eta anta-lakuntza aldetik dena primeran aterala esan digute. "Hurrengo batean ere beste zerbait izango da".



Argazkietan, Urruzuno Literatur Astearen zehar burutu diren bi mahainguruak eta Jasone Osororen Tentazioak ipuin-liburuaren aurkezpena.

Ongarri Zine Kluba

Estetizismoa Zinean gaiari buruzko minizikloa

nngarri Zine Klubak *Estetizismoa ilean* izenburupean aurkeztu du maiatzeko azken bi asteetan emango duen zine klubeko minizikloa. Bi pelikula osatzen dute ziklo hau, Wong Kar-Wai eta Nick Willing zuzendarien azken filmeek. Maiatzaren 21ean eta 22an, osteguna eta ostirala, Wong Kar-Wai zuzendari txinatarraren "Happy together" filmea emango da, 97ko Cannes-eko Jaialdian urrezko palma irabazi zuena zuzendari onenaren atalean. Beste pelikula, maiatzaren 28 eta 29an emango de-

na, Nick Willing-ek zuzendutako "Fotografiando Hadas" izeneko da. Irudien tratamenduan bi zuzendariak duten obsesio tekniko argi geratzen da azken emaitzan. Bi pelikula argazkilaritza lan ederrak dira. Lehenengoa, zuzendari txinatarrarena, berritzailea eta gaurkoa da, eta Buenos Aires-en dabilen bikote txinarraren baten maitasun gorabeherak kontatzen ditu. Bestea, berriz, klasikoazalea eta piktorkoia izanik, mende hasierako Ingalaterran gertatzen den maitagarrien ipuin' zoragarri bat da.

Enpresen gestioa eta zuzendaritza

AMAIA ARANZAMENDI

Arnaia Aranzamendi elgoibartarrak 19 urte ditu eta IMHn kokatzen den Gestio Eskolan ari da Enpresen Gestio eta Zuzendaritza ikasketak egiten. Bigarren kurtsuan dago.

-Zertarako prestatzen zaituztete Gestio Eskolan?

Teorikoki enpresak zuzentzeko balore berri ba-tzuekin ateratzen gera. Ez dauka zerikusirik orain arte ezagutu ditzugun Enpresa ikasketekin.

Zein zentzutan?

- Esate baterako, Gestio Eskolan ikasle bakoitzak pertsona bezela daka balixua. Gure kurtsuan 40 pertsona bakarrik gaude eta harreman zuzena dao irakasliekin. Gainera, hizkuntzak ikasten ditzugu, ingelesa eta frantsesa eta beste asignatura berri batzuk ere badaude.

- Ez da mugatzen, beraz, matematika eta antzeko kontuak ikastera.

- Ez. Horiek ere ikasten ditzugu baina gero badaude beste asignatura batzuk, esate baterako, jarrera pertsonala lantzeko. Hau da, enpresa munduan nola jokatu bihar dozun, taldian zure jarrera zein dan ere aztertzen da... Maila pertsonala lantzen da asko.

Zergatik erabaki zenuen Gestio Eskoian hastea?

- Neri unibersidadiak ez zian gehixegi konbenzitzen, ze iruditzen jatan oso hotza, jende asko eta, batez ere, lan mundutikan oso hurrin zauala. Dana teoria zala. Gestio Eskolak, berriz, enpresa munduakin harreman gehixo eta zuzenaua zakala ikusi naban eta, egixa esan, oso gustura nao. Gainera, 40 ikasletik 7 bakarrik gera

elgoibartarrak eta aukera bat da herri-tik atera gabe kanpoko jende asko ezagutzeko.

- Zein erako ikasgaiak dituzue?

Ba hasi tipikuetatik, mate, ekonomia eta horiek eta gero baitxa Industria Gestiva eta antzekuak ere. Azke-



nengo asignatura honekin gertutik ezagutzen dou hemen inguruko enpresen funtzionamendua, erraminta makinakin lotutakuak...

Horiez gain hitzaldiak ere izaten dira zuenean.

- Bai, danetik gainera, ez bakarrik enpresa munduakin Iotura dakana.

Etorri izan dia, adibidez, ONG erakundietakuak euren berri emateko.

- Elkartruke programei buruz kontuak zerbait.

- Guk ez dakagu unibersidadian bezela Erasmus eta antzeko programak baina 2. urtian interkanbio bat itxen da. Aurten gelako erdixak Holandan egon ginan eta oin beste erdixak Portugalen daude. Gero, nahi dabanak, badauka aukeria atzerrira juteko praktikak itxera.

- Praktikak ere badituzue, beraz.

- Bai. Berez hirugarren mailan izaten dia baina enpresetatik eskaera dauanez biganen mailakuak ere eukitzen ditzugu. Askok baloratzen dia praktikak ze alperrik da teoriarik asko jakitzia gero ez badakizu zein dan ikasitxako horren aplikazio praktikua.

- Bigarren urtean zaude. Zer ikasi duzu orain arte?

- Nik uste dot oin arte baxia hartu dogula eta hemendik aurrera dator zailena, gogorre-na. Ikastia erreza da, azterketak aproba ditzakezu baina askoz zaila da enpresa bat zuzentzeko kapaza izatia. Azken finian horretarako suposatzen da preparamen gerala.

- Iaz atera zen lehen promozioa. Denak, edo ia denak lanean daude. Pozgarria, ezta?

- Bai, animua ematen dizu ikustiak zure aurretik amaitxu dabena lanian daudela, batez ere kontuan hartuta gaur egun zelako zaila dan Iana topa-tzia. Aurrera begira ez dakit ze pasauko dan baina momentuz seinale ona da guretzat.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbu Iategia:

Larrialdia	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Osortalea	756264
Odol Emailak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	741626
Kiroldegia	744415
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547
Gaztetxea	741357

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEA

Haur Eskola	74 21 41
HHI (EPA)	74 08 80
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KONIUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Espariol	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki irratia	74 34 74

A G E N

D A

15 ostirala

18:00 AEROBITHON
Kiroldegian
Antolatzailea: Haritz D. T.

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

22:00 MUSIKA
KONTZERTUA
Taldea: Lorelei
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

16 larunbata

10:00 GIPUZKOAKO
ATLETISMO
TXAPELKETA
Mintxetan
Antolatzailea: Mintxeta Atletismo Taldea

10:00 TXINGUDI
KOBADIARA IRTEERA
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: Haizea E. T.

12:00 ZAZPIKIREN
BILERA
Ganbaran

12:30 TALDE
ANTIMILITARISTA
BERRITZEKO BILERA
Kultur Etxean

19:30-22:15 ZINEA
"Mejor Imposible"

22:00 KONTZERTUA
"Antisecia" eta "Rama de Ke"
Gaztetxean

17 igandea

6:30 ELGOIBARKO
MENDI ITZULIA
Irteera Morkaikoren egoitzan

10:00 TXIRRINDULARI
LASTERKETA
Irteera Plaza Handian eta helmuga Santa Klaran

12:30 GAIXOEN
EGUNA ETA
OLIADURA MEZA
Parrokian

16:30-19:30-22:15 ZINEA
"Mejor Imposible"

18 asteleena

22:15 ZINEA
"Mejor Imposible"

19 asteartea

19:00 HITZALDIA
Gaia: "Etxeko ekoLogia"
Hizlariak: Susana de Felipe eta Alejandra Sanchez
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E.

21 osteguna

19:00
IKUSENTZUNEZKO
EMANALDIA
Gaia: "Kontsumoa beste kultura batzuetan"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E. T.

22:15 ZINE KLUBA
"Happy together"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

22 ostirala

19:00 GAZTE
ASANBLADAREN
BILERA
Gaztetxean

19:30 HITZALDIA ETA
EZTABAIDA
Gaia: "Mendiaren erabilera eta erasoak"
Hizlariak: Pako Iriondo eta Inma Mugerza
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E. T.

22:15 ZINE KLUBA
"Happy together"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

■ ■ ■ E I Z E R R E • R • • • ■ ■ ■ al ■ ■ ■

IE



Zuzendaria: James L. Brooks.
Antzezleak: Jack Nicholson, Helen Hunt, Greg Kinnear.

-A

Mejor. imposible

Melvin idazlea da eta besteak iraintzen eta mintzen ederki pasatzen du. Kafetegi batean gosari koipetsu bat hartzen dagoela, bere hiletak entzuteko prest dagoen bakarra ezkondu gabe eta seme-alaba bat izan duen kamarera gazte bat da. Melvinen parean talentu handiko artista bat bizi da. Hiruren bizitzak nahastu egingo dira Verdell izeneko txakur bat dela medio.

al ■ R I Z R Z R E R R E Z Z 1 1 1 •

Dia Das Letras Galegas

OSTIRALA, 15

19:00 Jaien hasiera txatligu jaurtiketarekin. Galiziako jaki tipikoen dastaketa.

22:30 Berbena *Montecarlo* taldearekin. Queimada dastaketa.

LARUNBATA, 16

10:30 Txafliagu jaurtiketa.
12:00 *Do Carballiño Gaita Taldearen* kalejira Urasandin eta Herri Eskolan. Galiziako jaki tipikoen dastaketa.

13:00 *Montecarlo* taldearen saioa.

14:30 **Haurren jolasak.** Sariak banatuko dira.

18:00 Galiziako **jaki tipikoen dastaketa** Herri Eskolako gunean.

19:00 *Do Carballiño Gaita Taldearen* kalejira herrian zehar.

20:00 *Montecarlo* orkestraren emanaldia.

23:00 **Berbena** *Montecarlo* orkestrarekin.

IGANDEA, 17

9:00 **Udal Txistulari Taldearen** eta *Do Carballiño Gaita Taldearen* **diana**.

10:30 **Haritz Dantzari Taldearen ongi-etorria Gaita Taldeari.** Meza hilidako galiziar guztiak oroitzuz.

11:30 Plaza Handian, **Haritz Dantzari Taldearen** eta *Do Carballiño Gaita Taldearen* ikuskizuna.

13:00 *Do Carballiño* taldearen saioa Herri Eskolan.

14:30 **Bazkaria** Galiza Etxean herriko agintariarekin.
18:00 *Do Carballiño* taldearen agurra.

19:00 **Jaiei amaiera.**

• Honizertua Gaztetxean

Gazte Asanbladak Munduko Komertzioaren Erakundearen (OMC) aurkako kontzertua antolatu du biharko, hilak 16. *Antiseesia* eta *Rama de Ke* izeneko taldeek joko dute. Kontzertua gaueko 22:00etan hasiko da. Ez da sarrerarik kobratuko.

• Inia Das Letras Galegas' ospatuko da asteburuan

Galiza Etxeak urtero antolatzen duen `Dia Das Letras Galegas' jaien egitarauko ekitaldi nagusiak ospatuko dira asteburuan. Jai gunea Herri Eskolako patioan kokatuko da. *Montecarlo* orkestak emango dituen berbenak eta tabema zerbitzua ere bertan izango dira. Zapatu eta igandea bitartean Ourensetik etorritako *Do Carballiño Gaita Taldeak* hainbat ekitaldi emango ditu. Domekan, hilak 17, folklore ekitaldi berezia izango da *Do Carballiño Gaita Taldea* eta Haritz Euskal Dantzari Taldearen eskutik. Goizean, Udalaren Txistulari Taldeak eta Gaita Taldeak goiz eresia eskainiko dute. Goizeko 10:30ean meza hasiko da eta bukaeran, dantza eta musika ikuskizuna izango da Plaza Handian Udal Txistulari, trikitilari eta Haritzeko Dantzarien eskutik. Durangaldeko Erregelak, Arratiako jotak eta Iurretako `Dantzari' dantza-zikloko zenbait pasarte ikusteko aukera izango da. Ondoren, *Do Carballiño* gaita eta tanbor emanaldia eskainiko dute.



• Talde Antimilitarista berrizeko bilera deiaidia

Bihar, hilak 16, zapatua, Talde Antimilitaristak deituta, bilera izango da Kultur Etxean eguerdiko 12:30ean. Bileraren helburua taldeari norabide berria ematea da, honregatik, jende berriaren beharreen daude. Hortaz, antimilitarismoaren ildotik lan egin nahi duen guztia-ri bilerara agertzeko deia luzatu nahi zaio.

• Oliadura eta Gaixoen Eguneko meza

Elgoibarko Osasun Pastoralak Gaixoen Eguna ospatuko du domekan, hilak 17. Estatu osoan ospatzen da egun hau eta Elgoibarko Pastoralak meza antolatu du. Eguerdiko 12:30ean izango da. Lehendabizi oliadura (hunei6n) jasoko dute gaixoei eta ondoren, Gaixoen Eguneko elikizuna izango da.

4g1191)1,12

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
16	Yudego	Yudego
17	Yudego	Yudego
18	Zabaleta	Zabaleta
19	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
20	Escala	Escala
21	Bidasolo	Bidasolo
22	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

17 **igandea Zabaleta**

GARRI kluba



Happy togethe (Hong Hong 97)

Jai eta Ho Po maiteminduta dauden bi gazte dira. Argentinara iristen direnean, Buenos Aires-era, hain zuzen ere, euren arteko harremana eten egiten da. Bat jaioterrira itzultzen da eta besteak, berriz, Argentinan geratzea erabakitzen du. Urrezko palma irabazi zuen 97ko Cannes-eko jaialdian zuzendari onenaren atalean.

~1 Zuzendaria: Wong Kar-Wai
•Psoll Antzezleak: Leslie Cheung, Tony Leung, Chan Chen.



Lana

• ESKAINTZA •

- Tabernarako neska behar da aste-buruetan lan egiteko. Euskalduna. ts. 12 73 34
- Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin, tr 74 01 80
- Neska behar da tabernako barran eta mahaiak garbitzen lan egiteko. 19-25 urte bitartekoa. 74 45 87
- Ordenadoreen teknikoa behar da. Esperientzia haloratu da eta 26 urtez azpikoa izatea. Interesatuak bidali kurikulumak lehenbailehen Elgoibarko 8 posla kutxalilara.
- Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. a 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)
- Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko. Interesatnek deitu 15 18 16 telefonora,
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. a 74 12 33 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

*ESKAERAI

- 44 urteko emakumea eskaintzen da zaharrak zaindu edo/eta etxeko lanak egiteko. rr 74 09 06/74 10 55
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun osoa. Esperientzia daukat. a 19 21 28 (Axun)
- Neska eskaintzen da gaeuz pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat Zaharren Erresidencia batean lan egin baitut. 12 74 31 88 (Ana, Gaueko 20:00etatik 21:00etara)
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko, tr 74 20 72 (Edurne)

Bestelakoak

- Rolling Stones-en kontzerturako antolusa antolatuta da. Kaia tabernan galdetu.
- Etxehizitza haten eskriturak galdu ditut. Sobre zuri baten barruan daude. tr 74 33 41 (Conchi Maz.a Diaz).
- Neska hater beste neska bat behar du pisua konpaititzeko ckainean eta uztailean. te 74 00 98
- Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu ditut funda barruan gordeta. Urre koloreko patilak ditu. 2r 74 08 37/70 70 33

Salerosketak

• SALDU.

- Renault 19 (16 v.) autoa salgai. Matrikula: SS-AK. Egoera onean. ir 74 10 95 (Alberto, gaeuz)
 - Lokal-bulegoa alokatzen dut alzariekin, Erdigunean. tr 74 43 62
 - Game Boy bat saltzen dut, 13 jolas ditu, 13.000 pta. a 74 24 83
 - Kotxe kapota, kotxea estaltzekoa eta 2 manta salgai. Guztiak berriak. a 74 44 16
 - Aukera. Karabana salgai. Oso ondo zaindua. Prezioa 350.000 pta. ir 74 27 29
 - Aleaziozko 4 llanta saltzen ditut. Wolksvagen Polo autorako. 20.000 pta. n. tr 74 43 10 (Kitxo)
- ### • EROSI •
- Umea bizkarrean eramateko motxila erosiko nuke. 74 42 97

Partikularrak

- Latin eta grekera klaseak hartuko nituzke. re 74 09 85 (Nuria)
- Enpresariales ikasketetako Ekonomia I eta II ikasgaien klase partikularrak hartuko nituzke. ir 74 15 24
- ♦ Humanistikako klaseak emateko norbait behar da, 74 14 03
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. s 74 07 86

Etxebizitzak

- Pisua alokatuko genuke Elgoihar, Altzola eta Mendaron. rr 74 80 23 (Andres Casillas)
 - ♦ Duplex-a saltzen da Urasandi 17-2an, ir 939 22 84 41 (gaueko 21:00etatik aurrera)
 - Logela alokatuko nuke. cr 74 00 98
- *Etxea salgai Santa Ana kalean. 100 m2, ganbararekin eta igogailuarekin. 4. pisua da. te 74 11 05



Agurrak

- Zorionak Ainhoa Mendibili hilaren 18an 10 urte heteko dituelako. Ikas Ortzadarren eta Ikas Beleen partez.
- Zorionak Ainhoa Mendibiri 10 urte bete dituelako. Itsaso. Ane eta Alazneren partez.

Agurrak

- Zorionak Bitxori Zabalari bihar, hilak 16, urteak beteko dituelako. Nerea, Maider, Leire eta Gorkaren partez, Musu handi bat eta ondo-ondo pasatu.
 - Zorionak Eider eta Larari 10 urte hete dituztelako. Ainhoa, Itsaso, Ane eta Alazneren partez, Zorionak baita ere Larari Kristina, Ainhoa eta "Las ruhas con las rubias" taldeko Leireren partez.
- Zorionak Iosuneri hilaren 24an urteak beteko dituelako. Artetxeko guztien partez.
- Zorionak Luzia Dieguezi hilaren 6an 10 urte bete zituelako. Zorionak gurasoen eta anaiaren partez.
 - Zorionak Ainara Sanchezi gaur, hilak 15. 19 urte bete dituelako. Ama eta anaia Urko eta amamaren partez.

- Zorionak Lara Uraini gaur 10 urte bete dituelako. Bere ekipoa-aren eta Ikas Ortzadarren partez.
- Zorionak Eider Perezi hilaren 13an urteak bete zituelako. Ikas Ortzadar eta Ikas Beleen partez. Zorionak baita ere Lara Urainen partez.
- Zorionak Joana Astigarragari maiatzaren 12an urteak bete zituelako. Ikastolako lagun partez.
- Zorionak flaritz Calvori hilaren 10ean urteak hete zituelako. Pilarreko eta Ikastolako lagun partez.
- ♦ Zorionak Andoni Armendiari gaur urteak bete dituelako. Ikastola eta Pilarreko lagun partez.
- Zorionak M. Karmen, Judilh eta Joanari hilaren 17, 10 eta 12an urteak betetzeagatik. Nik ere asko maite zaituztet.



- Zorionak Asier Gurrutxagari atzo, hilak 14, 5 urte hete zituelako. Muxu haundi hat familia osoaren eta bereziki Aitorren partez.



- Zorionak Gorka Bengoetzeari gaur 14 urte hete dituelako. Maider, Leire eta Nerearen partez, ondo pasa eguna.

- Zorionak Janire Gorritiri hilaren 18an 7 urte beteko dituelako. Familiaren partez, bereziki Mikel anaiaren partez. Ondo pasa zure 7. urtebetetze eguna. Goizeko lehenengo lagun partez.



- Zorionak Joseha Eliari igandean, hilak 10, Lelien Jaunartzea egin zu. Uelako. Maialen eta amamaren partez.

- Zorionak Maria Hernandezi hilaren 20an 6 urte heteko dituelako. Anaia Andoni eta familia osoaren partez.



- Zorionak Nerea Aranberriri hilaren 19an 14 urte beteko dituelako. Etxeko partez musu handi hat eta orain arte bezala jarrai dezala.

- Zorionak Oseti hihar, hilak 16, 11 urte beteko dituelako. Santa Ana kaleko lagun partez, batez ere Nerea eta Egoitz partez.



- Zorionak Pedro Ansolari here 91). urtebetetzean bere bi iloba Julen eta Iratiren partez.

LENTILEN HILABETEA

LENTILA KONBENTZIONALAK



0,00 - "Nlb
olr%

..JSCH
& I, MB
rrntes de Contacto

Pack Joven d=az



eta orain
Kirol
Erloju
bat
opari

17.5001

Sei hilabeterako kontaktuzko lentineen
eta soluzioen Pack-a
BAUSCH



Egun oso batez gozatu
eta esan agur lentilei

19.900

pta.gatik besterik ez



2 kaxa erosteagatik
(13 hilabeterako lentineak)
eguzkitako betaurrekoak
opari

Ei unero aldatzeko kontaktuzko lentineak



Ordaintzerako orduan abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu txartela.
- Dirurik gabe erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunez atzeratzeko aukera izango duzu, batere errekarurik gabe.



oarriz
Avet.ci
pRoGNA
pubmi

111) MULTIOPTICAS

PTIKA


San Frantzisko, 21
Tel: 943 74 03 59 • Faxa: 943 74 06 16
ELGOISAR

Ostolaza, 7
Tel: 943 19 21 92
DEBA



**25 URTE HAUETAKO ESPERIENTZIA da gure garantiarik onena.
Urte hauetan gudan jarritako konfidantza eskertuz,
betiko lekuan aurkituko gaituzu
merkatuko kiroi markek ateratako azkenarekin.**

**HONDARTZAKO eta
KANPINeko
produktueta
aukera zabala**



**Laster, Errosario 23an,
bizikleta denda berria.**

**Salmenta eta konponketa.
Promozioko eskaintza bereziak.**

**Astigarraga kirolak
Errosario 16/18
Tel: 943 74 32 68**

**Astigarraga lorak
Jausoro plaza, zlg
Tel: 943 74 43 86**

**Astigarraga bizikletak
Errosario 23
Tel: 943 74 32 68**